

edo alde artara
 dauden birietan,
 Beste piñti batzuben
 egope onetan,
 ikusten dira iñoiz
 uda-egunetan,
 beren lumak bustiyaz

Konchako bagetan
 pozkidaz dabilzala
 jostatzen uretan...
 Sartu gabe kondaira
 luziaguetan...
 orra nere iritziz
 Donostiya zer dan.

PEDRO M.^A OTAÑO.

EKINTZA MINDUNA⁽¹⁾

UStAILLA-ren amazpiko gabea, otsaundiko ekintzaren gai agertza bat izan da, Pello Mari gizagajuaren oroitzan, «Sporti-Clai» deritzon Bill-echian, zeñatan irakurri zituzten ondoren, edo zenbaki ontan ikusiko diran lan egoki samur, biyotzezko maitakitsuak, Joñe Ganboa, Domingo Andonegi, Felipe Casal, Joñe Artola, Joñe Elizondo, Ramon Echebeste, Joñe Zapirain eta errenkada aben egiliak; gañera biraldu zituzten bakoitzak beren biursakintza egokiyak, Rosario Artola, Bitoriano Iraola, Luis Latierro, Kayetano S. Irure, Emeterio Arrese, Ramon Gelbenzu, Joñe Marino Arrieta eta Alejandro Berroak.

Guztiro ederki aritu ziran irakurtzalle guztiyak, onraturik beti oituratzen duten bezela, «Euskaldun Fedea» beren laurka maitagarriya, zerengatik izan ziran denak chalo ugariyak berenganatu zituztenak, gela eder artan arkitzen ziranengandik.

Eta, ¿zer esango det Giroy, Arruti eta Isasti kantariyakgatik? Goi goyeneko mallara irichirik aritu zirala, beren birikaspo, eta eztarri legunen almenak gaiturik, osoro chalo aundipean kantagai guztiyak bi bederturik.

Aurrera beti mutillak, eta sendoki eutzi Euskerari.

JUAN INAZIO URANGA.

Ustailla-ren 17-an, 1010-au.

(1) Emeterio Arrese jaunaren lana, onen aurreko zenbakiyan arki da.